

# Kulturgintza antsietatearen garaian

“Etorkizuneko, barneko eta mugatu gabeko arrisku baten aurreko segurtasunik eza” gisa definitzen du hiztegiak “antsietate” hitza. Konfinamenduak agerian utzi dituen gauzen artean, sentsazio horrek gaur egungo gizartea artikulatzeko daukan ahalmena dago. Eta kulturgintza ere ez dago bizitzeko modu angustiarri horretatik aparte.

✂ GORKA BEREZIARTUA MITXELENA 📷 PICKPIK

**A**ntsietate handiegiz bizi gara denok da testuaren izenburua eta Kontzientzia Prekarioaren Institutua izeneko talde batek sinatzen du. 2014. urtean argitaratu zen lehenbiziko aldiz *Plan C* webgunean (<https://labur.eus/tE5Le>), baina sei urte pasa diren arren, koronabirusari aurre egiteko agindu duten etxealdiaren ondorioz, kasik idatzi zenean baino gaurkotasan handiagoa dauka une honetan.

Kapitalismoaren fase bakoitzak afektu nagusi baten inguruan funtzionatzen duela esplikatzen du talde horrek; eta afektu nagusi hori “sekretu publiko” bat dela, hura formulatzen denean bakarrik has daitezkeela herritarrak menperakuntzatik askatzen. XIX. mendean “miseria” izan zen, alegia, aurrerapen tekniko eta industrialek aberastasuna sortzen zutela zioen narritiba ofizialaren azpian ezkutatzen zen milaka pertsonaren gosea; behin formulatuta –garai hartako nobela entzutetsuenetako bat, hain zuzen, Victor Hugoren *Miserableak* da–, dominazio-afektu hori borrokatzeko ateak ireki ziren, hamarkadak iraun zituen iraultzen maratoi bati hasiera emanez.

Hurrengo geltokia, Kontzientzia Prekarioaren Institutuaren arabera, II. Mundu Gerra osteko kapitalismoa da, ekoizpen eredu fordistarekin eta honen eskutik datorren afektu nagusiarekin: asperdura. Beharbada 1960ko hamarkadako situazionistak izan ziren horri erantzunik borobilena eman ziotenak, adierazi zutenean ez zutela nahi mundu bat zeinean gosez ez hiltzeko garantia bakarra erabat aspertuta hiltzea zen. Kontrakultura, sexu askapena edo aurreko hamarkadekin konparatuta hain zurrinak ez diren antolatze forma politikoak izan daitezke fase honetako afektu nagusiaren kontra asmatutako irtenbideak.

Baina, testuaren egileen arabera, erantzun horiek agortuta daude jada, gaur egungo kapitalismoan beste afektu bat nagusitu baita: antsietatea. Bizitzen prekarizazio masiboak, segurtasun ekonomikorik ezak, isolamendu sozialak eta etengabeko bitartekaritza teknologikoan ardaztutako sozializatzeko modu berriek ezinegon konstantean bizi den gizartea sortu dute. Kontzientzia Prekarioaren Institutuak zioen –eta gauzak ez dira asko aldatu– afektu zapaltzaile hori ez dagoela oraindik problematizatuta; eta beraz, tresna zaharrekin ari garela arazo berriei aurre egin nahian.

Kulturan ere hori gertatzen dela esateko arrazoiak ez dira falta: miseriaren problema bukatu zen –kultura gaur egun herritar guztientzat da irisgarria–; eta asperdura ere desagertu da, paroxismoraino ugaritu diren entretenimendu-aukerekin. Antsietatea, ordea, bere potentzia guztiarekin ari da funtzio-

natzen, konfinamendua hasi bezain pronto ikusi den moduan: mota guztietako sortzaileak presatu dira egoeraren aurrean zerbait ekoiztera, lehenago ere itogarria zen dinamika bat, eten-gabe agertu eta zeresana eman beharra, are gehiago indartuz. Gainera, bestelako lan kulturalik ez dagoen bitartean etxealdian egiten diren gehienak doan egin behar direla dirudienez –*streaming* kontzertuak edo solasaldiak, adibidez– prekarietatearen gorpila are gehiago elikatzen dute eta, ondorioz, antsietatearen txorrota toperaino irekita dago une honetan.

Baina gurpil zoro hori gelditu dezaketenez praktika kulturalen premia ere, geroz eta begi-bistakoa bihurtu da. Hemen eta orain, askatzailea izan nahi duen kultura-eredu batek antsietatearen auziari aurre egin behar dio. Eta hori egiteko, irisgarritasunaren eta batez ere entretenimenduaren paradigmatik abiatzen ziren formulak gainditu behar ditu. Euskal kulturak ere hor bila deza-ke, agian, kamustuta daukan puntarentzat zorroztarria. ●

